

Martin Rua Urdangarin

E maila • 1 aipamena

Martin Rua Urdangarin (Beasain, 2010ko azaroaren 6a). Beasaingo La Salle Ikastetxean lehen hezkuntzako bosgarren maila egiten ari da. Txikitatik artista, irudimentsua, eta kulturaren esparruan murgilduta dago. Musika gustukoena duen arren ipuinak garatzea ere gustatzen zaio. 2020an Egia da! idazlanarekin sailkatu zen Beasaingo Udalak urtero egiten duen idazlan lehiaketan. 2021ean Txertotzaranga lanarekin sailkatu da aipatutako lehiaketan.



TXERTOTXARANGA

Nire herriko biztanleak, ez dira ohiko txertoekin sendatu, txerto berezi batekin baizik.

Duela 5 hilabete gure herrian COVIDa zuten pertsonen kopurua asko handitu zen. Ondorioz, alkateak etxean konfinatuta gelditzeko agindua eman zuen. Jendeari bost axola! Inork ez zion kasurik egin! Kanean, parkeetan eta tabernetan distantzia mantentzen ez zuen eta maskara sudur azpitik zeraman jende pilo zegoen.

Ni oso triste nengoen, denak gaixotuko ginen beldur nintzen. Irtenbide bat bilatu behar nuen. Gau hartan ez nuen lorik egin, pentsatu eta pentsatu pasa nituen orduak. Eguzkia atera zenerako ideia bitxia nuen buruan! Baina, aurrera eramateko laguntza behar nuen, alkatearen eta tronpeta jotzen nuen txarangako kideen laguntza.

Goizeko zazpiretan, txarangako kideei mezu bat idatzi nien zortzietan bideo deia egingo genuela esateko. Esandako orduan elkartu ginen, ez zen inor falta. Nire ideia kontatu nien eta sekulakoa zela esan zuten, beraz, lanean buru belarri jarri ginen: bakoitzak, jotzen zuen instrumentuari musuko bat egin behar zion, musuko original bat. Horrela, nahiz eta taldean egon, instrumentuetatik ateratzen zen haizeak ez zuen inor kutsatuko.

Hurrengo egunerako prest genuen dena. Arratsaldeko zazpitan herriko plazan gelditu ginen. Denok instrumentuan musukoa jantzita azaldu ginen. Ondoren, alkatearekin adostutako orduan bere bulegora joan ginen.

Herritarrekin tratu bat egiteko eskatu genion: denak etxean konfinatuta gelditzen baziren, egunero herriko kaleak gure musikarekin alaituko genituela hitzmateko. Horretarako alkateak eta bere lankideek biztanle guztiei mezu bat edo gutun bat bidali beharko zien. Nahiz eta lan handia izan, alkateak baietz esan zigun. Oso, oso pozik joan ginen etxera. Plana pentsatuta nuen bezala ateratzen ari zen. Gau horretan ere, ez nuen begirik bildu.

PROSA

Hurrengo goizean, alkateak telefonoz deitu zidan herritar guztiek baietz esan ziotela kontatzeko, oso kontentu zegoen. Eskerrak eman nizkion eta txaranga kideekin bideo deia egin nuen berria emateko.

Egun horretan bertan, arratsaldeko zazpiretan musika jotzen hasi ginen. Notak entzun bezain pronto, herritar guztiak, etxeko balkoietara atera ziren txaloka eta dantzan. Sekulako festa egin genuen. Egunean hiru aldiz ateratzen ginen herriko kaleetan zehar. Astebururako, herriko COVID 19 positiboen kopuruak zerora jeitsi zen. BAI!!! Planak funtzionatu zuen. Aupa herriko biztanleak, gora alkatea eta gora TXERTOTXARANGA!